



ESKOLAN

Maxubak.—*Vosotros que tan atrasados vivís en este país, ignoráis que hay más animales que la vaca y el cerdo. Vamos a verlo. Tú, Pedro, ¿qué animal es éste?*

Kepa'k.—*¿Orí?... maestro...*

EUZKELDUN NESKATILAI

Aurera jaratu baño len, Mme. D'Alq. pantzetar emakume ta idazle ospetsubak esan ebana euzkernaldu gura-dot emen:

«Buru arina daben askok (guk euzkeraz *Ixorburu* esaten dautsegunak), sendifartian edo pamilijaren artian mukekeri gustijak laketua (*permiduta*) dagozala ueste-ixaten dabe, ta loisea arotzai, kanpotarai bakarik ixan biar-yakela, etxeukuakin ardurarik erabili biar-etzala. Orañño, ardurage onetanik kalte andjiek otortien dira.

«Guretzako ezer eziranean aurian, geure utsak eskutetako alegiñak egiten doguz, onak eta polifak agertu guraz Geure onduan aldi labura baño igaroko eziranai, loisea ta on-eritxija agerituten aleginduten gara. Eta, bariz, geukin beti bixi-diranen aurian eztozu ardurarik geure utsak agerituteko; geure odolokuakin mukefak ageritzia etxaku ardurarik ixaten safi askotan.

«Zegatik auz? Zegatik arotz edo kanpotarai etxeukai baño begirakun geyago egiten ete-dautsegun? Geure idekuak, arotzak baño txataraguak ete-dira? Gihotjago dirala ueste ete-doguz?

«Neskatiak ixakera orek kalte andjia ekarten dau. Lenenguan, idekuen matasunak jasan edo sufridu leitekez ardira-ez orek; baña lañegi azbilten ba-dira, matasuna otzituten dabe.

«Bariz, etxeukai, idekui ixaten dautsegun loisea ta begirakun matasuna andjagotuten dabe ta sendifarteko bixikerea, askotan gogof-neketsuba ixaten dan bixikerea arindtu ta gozatuten dabe.

«Ekandun txiki ta edet au noberek igari-barik artzen da, asizkeru». Ori esan eban pantzetar emakume ospetsubak. Eta neuk diñotzubet, euzkeldun neskati begiko orek, etxeukuakin, kanpokuakin baño matagari ta arduradunak ixan biar-garala. Sendi-baruban alayak, mendubak eta ondo esane-kuak ixan biar-gara.

Eta etxetik ataz, geure idekuak, euzkotafak mafe -daiguzan ienengo. Eta euzkotafan artian, euzkeldunak eta aberzialak.

Etxakin.

Osalari edo medikubak Astakilo'ri (buruba azeituririk):

—Konkor andi bat daukazu emen, eta ori *gento* txararen señalia da.

Astakilo'k:—Zuzen zagoz, bai. Emaztiak egin-daut itxusjiaz.

TXORIAREN AZKEN-AGUR-ERESIA

Udazkenaz ifunik gustia dan

ezki-soilduen ostean:

Ili zimeia dagon antzera,
txoria abesten zegoan;

Negarigilea zeukan biyotza,
orobat zan eresia;
ta onela zan bere izkuntzako
abestiaren izkia:

«Leno esnatzen mindun
eguzkiyak,
ta bere ditziraren
ma gozoak:

Ozu' ortza estalia
odei beltzez...
eta ludia ixilik
atzekekabz...

Zelaira ni lenago
juten nitzan;

Iliakin nebifen
jolasiän;

Atxonik gaur ez dute;
ez margorik:

Buruba daitik eri
ta bakarik.

Bakarik lagun-gabe
nik ludian;
nola poza izango det
biyotzian?

Biyotzian det mifia
joi aundiyal...
laster, bai, egingo det
ilobia.

Ilobia jabi ta
lo arturik...
negua ikusi-gabe
nai det il nik...

Amaitu zuen eresia...
Boa udazkena luditik...
Txoria beti gerozlik dago
geldi-geldikan ta isilik.

Ilda zegoan osto-gañian...
ala utzi zuen neguak;
arpegi latzak bildurta zuen
eta iloyaldun elurak.

Arguin'dar Eneko.

—Ja noz ordainduko (pagatuko) daustazun lengo urtian saldu neutzun beya.

—Oixona, orduban ifundu gendubana bete diar-dogu. Zortzi amaiseko eskatu zeustezan. Nik lau abindun neutzuzan, beste lauzen zor geratzeko.

—Orexegeatik, ba, zeuri natorfikuz zor-daustazuzan lau amasekuok eskatzera.

—Baña gixona, ordainduko ba-neutzuz, eiztake zorrik geratuko. Eta geuk esan genduban lau amaseku orek zoran geratuko biariko ziralaz...

ERIJOTZ-GARALIA

Lobel-abeltxu (infusorio) bat jayo ta pozik bixi zan, baña ispel (ostr) batek jan eban.

Ispelei alai eguala, arian batek iruntsi eban.

Araña ur-azalez joyan bein, baña beragana itxastori batek eldu, atzaparak oratu. ta il eban.

Aranokumiak itxastoria artu ta iruntsi eban.

Aranokumia, zorjondun, aitz-zulo baten sartu, egal-pian buruba esku-tau ta lotan geratu zan. Baña laster azeriak etori ta il eban.

Otsuak il eban azerija.

Katamotzik, otsua.

Lunak (fioyak), katamotza.

Eta orixe eginda, aro-aro esan eban: «Ni naz abere-bakalduna (animali, -eregiä)».

Baña eiztari edo kazadore batek tiroka berai il eta buruba jasota esan eban:

«Ni naz ludiko (munduko) bakalduna».

Orixo esanda, dardaraz asi, bekokija ixerdi otzaz busti ta lufera jausi zan, Erijotz'k eraldia.

«Eztazo ludijan nok nire aurka egin. Gustijok betu, gustijuen goti garale lotzen naz. Ni naz ludi (mundu) gustiko bakalduna. Ni naz erijotza».

Orduban agiri ixan zan gotzon edo ingeruba, odei zuri-zuriz inguratuta ta bekokijan gurutza erakusten ebaña. Alde gustijetara begiratuta abots, sendaaz esan eban:

«Aloroduna (gusti-alduna) dan Janna'ren ixenian; ludi onen egilia dan Jaun-goikua'ren ixenian, berbixi ilik zagozan gustijok!»

«Jaun-goikua da gauza gustijen Jauna. Jaun-goikua da bixitzaren egilia, erijotz-garale bakara».

(Ituralde'ren idazti batetik euzkeralduta)